

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Proiektu hau gaur egungo gizartearen otordu tartetean elikagai osasungarriak sustatzeko helburuarekin sortu dugu. Gaur egun biztanleriak ez dago kontzientziatuta ingurumenean dagoen zikinkeria eta osasuntsuak ez diren elikagaien kontsumoarekin. Orain arte aurrera eramandako ingurumena zaintzeko hainbat proiektuek ez dituzte beharrezko fruituak eman.

Komunikabideetan hainbatetan entzun dugu itsasoari dagokion gatazka. Gatazka hau itsasoan dagoen plastiko eta zikinkeria masiboari dagokio. Honek, hainbat itsas animalien sufrimendua edota heriotza eragin dezake.

Bestalde, kaleetan dagoen kutsadura ozono geruzaren lodiera estutzea eta, honek, glaziarrak urtzea ekartzen du, ondorioz itsasoaren maila igotzen da.

Guzti honek gure proiektua garatzera eraman gaitu.

Eskolan, autobus,tren geltokietan edo kaleetan egoten diren janari makinetan hasi ginen pentsatzen, eta han saltzen diren gozoki, opil industrial eta azukre askoko elikagaietan. Orduan, gure ideia janari makina bat, janari osasungarriz betea egitea pentsatu genuen.

Aurretik azaldutako arazoari dagokionez, gure ibai, itsaso eta ozeanoetan dagoen plastiko eta zikinkeria ugaria da. Orduan, honekin lotuta, pentsatu genuen gure makinatik plastikoa kentzea edo gutxienez murriztea, poltsa organikoak ezarriz.

Bi ideia hauek lotuta, gure proiektura iritsi gara, eta honekin, gure bezeroek osasuntsu jatea eta ingurua zaintzea lortuko genuke. Honela, umeak janari makina batera joatean eta gozokiren bat erosi beharrean, sagar bat erosi dezakete. Hala nola, umeen elikaduran lagunduko genuke, osasuntsu jaten ohituko zirelako. Bestalde, pertsona helduak ere erakarriko genituzke, gure produktuak ez litezkeelako janari aurre prozesatuak izango eta bidai baterako edo lagunekin kalean egotean, opil bat jan beharrean, platano edo sagar bat jan dezaketelako.